

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Igartua Ugarte

*Oñati,
Gipuzkoa
(1920-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Azkarraga Haundi baserrikoa. Karegina; karegintzaren inguruko azalpenak eman zituen egindako elkarrizketan.

Zintak

ONA-029

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Data:**
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

Pasarteak

1. Inguruetako karobiak

- **Erref:** ONA-029/001
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea non egiten zuten; inguruetako karobiak. Basoetan ere egiten ziren karobiak. Honen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Lehenengo, karia nun itten zan, zein lekutan?
- Ba, etxe gehixenetan karia, toki askotan, [aldeku] be bai, hemen gurian be bai, zerien, Erostejin be baeuen karobixa, Urzelain be bai, Konkenian be bai, eta gero basuetan be eitten ziran orduan karobixak.
- Basuetan be bai?
- Bai, basuetan be, otiakin nola eitten zan, otia nola erreten zan, ba otia

ebagi eta otia etxera ekarri biharrian, basuan karobi zuluia ein eta gero basuan erre, hurraio eukittiarren.

- Baserri baikotzak eukitten eben bere karobixa?
- Ez.
- Edo auzoko hainbeste egoten zian?
- Ez, bat .. bat, egoten zian, ba, Gorordok be hantxe eukan karobixa.
- Oin ya ez, oin txabolia eindda dakou.
- Geuk be ez! Ez dakou oin. Geuk be hortxe geukan, etxe onduan.
- Nik neuk ez dakot goguan guria be.
- Aldekuak be aldamenian hortxe eukain, ointxe kendu euein honeik be. Horko kamiñua ein zanian kendu euein aldekuak be. Geuk be ointxe kendu dou. Oin hemen egongo dia: Erostegi Txikiñian dao bat; Urzelain be tapauta dao; Konkenian dao beste bat.
- Oinddiok lehengo moduan, e?
- Konkenian beste bat.
- Urzelain be bai.
- Baiña tapauta!
- Bueno, zikiña botata edo.
- Bai, horixe. Horrek ez dako txisterik, ikusi ein bihar da karboixa zelakua dan, barruan.
- Konkenian dago orduan, ikusteko modukua?
- Bai, beste bat, akaso zikiñez beteta ez badakoi, baiña Konkenian dgo etxetik goratxuao, etxetik pittin bat goratxuao dakoi, Urtigaiñera dauen euren bidian, hantxe dao.
- Ikusi barik...
- Kamiñotik bistan dao.
- A, bai? Sekula fijau barik nenguen.
- Ba horixe, fijau ez, klaro.

2. Karea egiteari noiz eta zergatik utzi zitzaion

- **Erref:** ONA-029/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Inguruetan Urzelai izan zen karobia egiten azkena. Gerra ondorenean karobiak egiteari utzi egin zitzaion pixkanaka. Karea egiteak lan asko zuelako eta karearen salmenta jaitsi zelako utzi zitzaion karea egiteari.

Transkripzioa

- Noiz itxi xakon karia eittiai?
- Azkenengo, azkenengua, hemen azkeneko karia ein ebena Urtzelai izan zan. Urtzelaikuak, hemen nik azkenengo ezautu dotena Urtzelai izan zan. Ta kariai itxi xakola, ba, berrogei bat urte bai.
- Berrogei urte bai?
- Bai, berrogei urte bai.
- Nik leidu dot ez dakit nun gerra ostetik aurrera ya izten fan zala jentia.
- Bai, bai, bai, ya... gero ondorian ya... geuk be ez dakit gerra ondorian gehixao ein izango geben. Aurretik bai, neu soldau fan nintzanian be karobixa kargauta itzi neben neu soldau fan nintzanian be. Ta ni soldau egon nintzala 22, 77ri 22 kendu, aber zenbat dian... 55 urte. E? Ta ba! 40

urtetik gora, gora, 40 urtetik gora.

- Zeatik itxi xakon?
- Lan asko eukalako, lan asko.
- Eta ya ez ebelako kariak...
- Klaro, ez eukan saltzeko, ez eukan eukitten bentarik. Ya gero karobi... beste karobi, ez dakit noiz formauko zan, baiña gero hor zerian, Garagartzan, euen beste [karia eitten]... gaur be ingo daue Garagartzan karia.
- Bai oindiok? Lehengo erara?
- Baiña kanteran, e? Lehengo erara ez, kanteran, nik ez dakit zela eitten daben. Gero jentia itxi ein otsan. Gero etorri zan etxiak zuriketako be, kariakin zuriketan zian lehen etxiak, habitaziño danak. Gero enpapelaua eta pintturia eta etorri dia eta horreik danak... ba galdu ein da. Sukaldiak be gaur kariakin ez dau iñok pinttaitten.
- Oin ittoia edo ezpada...
- Bai, ittoia baiña, hortarako oin almazenian dakozu zakuetan eta ez dau zera eitten...

3. Karea saldu partikularrei edo Antzuolako kurtideriara

- **Erref:** ONA-029/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Zenbaitek lau urtetik behin egiten zuen karea, baina beraiek urtean behin ere egin izan zuten, karobi txikia zuten eta. Inguruetan kare gehien egiten zutenak beraiek eta Urzelaiarenekoak izaten ziren. Karea nora saltzen zuten; etxea zuritzeko, Antzuolara kurtideriara.

Transkripzioa

- Zenbatian behin eitten zan?
- Guk urte askotan urtero be bai.
- Urtero?
- Guk karobixa txikitxuaua geukan, gurian karobixa zan, beste, Urtzelaikua eta honeik baiño txikitxuaua. Nola eukitten geben abarra asko, abarra egoten zan, piñu abarra. Aurretik otiakin erreten zan. Bueno, hori gero ipiñiko dou, ezta? Zela erreten zan eta...?
- Bai, gero hor apuntauta dakot hori be bai.
- Zeuk esan, galdetu zeuk.
- Orduan, urtian behin eta hola eitten zan?
- Bai, batzuk, beste batzuk lau urtetik behin edo bostetik behin edo, beste batzuk behin erretakuak igual, bape erre barikuak be baten batzuk igual egongo dia. Batzuk izaten zian. Hemen gehixen erreten gebenak geu eta Urtzelaikua izaten zan. Geu eta Urtzelaikua.
- Auzo danetan izaten zan hola, bardin? Auzo danetan, hola Oñati maillan eta, zuk dakitzula?
- Bai, erreko zian, hemen Murgixan eta Berezaun eta honeittan be erreko zian, danian, danian, zeatik orduan sorua abonaitteko ez euen besterik ezer, karia botaten xakon soruai asko, guk larrei botaten gosten soruai.

Klaro, horrek be, oin hor egurra dauen lekuan eukitten geben karetegixa, hor bertantxe erreten geben eta hartu eta horra botaten zan eta betik karia sobra. Gero hemen ba, zapatuetan eta, Araozko andrak etorten zian, etorri astuakin eta... ene! Bihar dot ba nik arrobatxo bat kare, bihar dot ba! Eta Trinidadetarako etxia zurittu bihar, zuriketako bihar izaten euen eta hemen holaxe saltzen zian. Azkeneko urtietan, hola, kamionkadatxo bat-edo, zerea eruaten geben, kurtedixarako Antzuolara, honeik, Galarza, horreik eukein han kurtedirixia eta kamionkaratxo bat erreten gebenian haretzek eruaten eben. Bestela ba, hemen ba, etxietara.

- Saldu eitten zan?

- Saldu, saldu, bihar gebena etara eta saldu. Hautsa eitten xako gaiñian, harrotu eta barruan harrixa egoten da, harrixa barruan, harrixa bihar da karia eitteko.

- Harrixa bihar izaten da?

- Urtutakuakin ez dau eitten, bestia eitten da uretara bota eta irakin. Gero ha eitten da, balde edo depositto zer batera bota eta ha egoten da urte batian edo bixan igual.

- Ha geldi eduki bihar da.

- Ur puxka bat bota gaiñian eta ha han egoten da, eta gero gaiña kendu eta ha hartu eta letxaria betik gertu egoten da.

4. Etxekoak karegintzan; inguruetako karobiak

- **Erref:** ONA-029/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Etxekoak ibiltzen ziren karea egiten. Gau eta egun egon behar izaten da karobia zaintzen erretzen dagoen bitartean eta batzuetan auzokoak etortzen zitzaizkien laguntzera. Etxe ondoetan egoten ziren karobiak, baina baita basoan ere. Inguruetako karobiak. Karobia egiteko lekuan arbela egotea komeni da azpian, lurra erre egiten da eta.

Transkripzioa

- Zenbat lagunen artian eitten zan?

- Han guk, etxequak ibiltten giñan.

- Etxequak bakarrik?

- Guk etxequak ibiltten giñan, nola aurrez preparaitten geben, etxequak ibiltten giñan, eta oin ba, gero gabian lagun eittera aldekoen batzuk betik etorten zian, nola gau eta egun egon bihar izaten dan erreten, gabian relebaittera igual etorten zian, aldekoen bat edo bestela parienten bat edo, ezagunen bat edo, gabian, ezta, ba? Atendiu ein bihar izaten xako, harek gau eta egun egon bihar izaten dau sutan.

- Segiru baten bat egon bihar.

- Bai, bat bakarrik... bi hoba!

- Karobixak ze lekutan egoten zian esan dozu, etxe ingurutan egoten zan, etxe onduan?

- [Parte] bai, [parte] etxe inguruan egoten zian, baiña lehen esan dotena, basuan, basuan be, konparaziño bateko, Zapatan, egongo dia, egongo zian karobi zuluak. Eta beste karobi zulo bat egon da... oin ez dakit, honezkero

kenduta egongo da, zu ez ziñan hara helduko, Tantelukuak dakoi hor, Mandrikan, hor dakoi...

- Bai, txabolía han dako.
- Beherauan dako beste zail bat, ointxe piñua bota daue, han bidekontran, han be egon zan karobi zuluá.
- Eta zer zan, Tantelukua?
- Ez dakit, ezin dotsut esan, ez dotsut esango, guk alde hortara gutxi faten giñan, baiña han euená banekixen. Ba holaxe egoten zian ba... ota asko, nola otalekuak dian, ota asko egoten zan ta [...] eta otia ebagi, neguan otia ebagi, eta gero hartu eta gero karobira.
- Nik dakot, ifintteko lekuak eta... lekuri erosuenian eitten zala eta gero arbel-lurra izan bihar ebela.
- Arbel-lurra bai, zererako bai, eitteko, baiña guk hemen etxe onduan geukan honek, guk harrixakin eindda eukitten geben, harenarrixakin einddako, bueltan harenarrixakin eitten gotsan.
- Eta arbela egon bihar dau karobixa eingo dan lekuan, lurrian?
- Bai, klaro, bestia erre eitten da-eta, lurra erre eitten da, han egoten dan beruak erre eitten dau lurra.

5. Karobien konponketa;karobiaren neurriak

- **Erref:** ONA-029/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobia apurtzen zenean konpondu egin behar izaten zen hari berriak sartuz; honen inguruko azalpenak. Karobi desberdinak egoten ziren, tamaina desberdinetakoak. Karobiaren gutxi gorabeherako neurriak.

Transkripzioa

- Eta karobixa hola zainttu biharrik? Arreglau biharrik edo?
- Klaro, betik izaten zan aberixan bat, ba, hurrengo barrixa eitten zanerako; karobixa izaten da, hola, erredondokua, hemen erredonduan eukitten dau holako zenefatxo bat, eukitten eben, hau zuluá beheraño hemen, sua eitteko, hemen honaño hola, ezta? Hemen eukitten eben hola, zenefatxo bat, eta hemen hasten zan harrixá ifintten, karia eitteko harrixá bueltan ifintten zan, eta hor askotan, hor apurtu eitten zan hori, arreglau [ezian] ba erre, beruak ba erre, edo egurren batek jo dauela edo harrixak jo dauela edo betik izaten zan, ez zan izaten ze haundirik, betik izaten zan.
- Arreglau biharrekua orduan.
- Arreglau biharra. Guk nola harenarrixak [ebalitten] gittuan, zulon bat baldin baeuen be, atzera harri barrixa sartu eta zerakin, buztin puska batekin zera ifiñi eta "ya está"! Martxan atzera.
- Ze neurri eukitten auen, danak diferentiak?
- Bai, diferentiak izaten zian, guria zan txikitxuaua, "en cambio", Urzelaikuak eta honeik zian haundixauak, baiña hareik nola hartaraxe dedikaitten zian... Gu, berriz, ba, etxerako betik, ba, basuetan nola zarramarra asko egoten zan, eitten zan ba zarramarria aprobetxau, nunbaitetik... ez dakitzu? Orduan ez euen besteik, e! Orduan ez euen fabrikarik eta, oingo moduan, bizimodua ba hemendik, bizimodua ba hatxe aprobetxau eitten zan.

- Eta gutxi gorabehera ze altura eta ze zabal eukitten eben?
- Ze altura? Hareik, hiru-lau bat metro bai guriak be! Eta horreik aber gehixao eukein, Urzelaikuak gehixago euen.
- Ez dakit nik, zikiñakin ezautu dotenez, ez dakit behera zenbat ...
- Hiru-lau bat metro, hiru-lau bat metro euko zittuein horreik.
- Haundixauak be egoten zian?
- Hiru metro bai, guriak be hiru metro eukiko zittun behintzet. Gero erredondua, batzuk haundixaua beste batzuk txikitxuaua.
- Neurri jakiñik ez euen.
- Neurri jakiñik ez, ez, neurri fijorik ez.
- Lekua zelakua, halakua.
- Bai, bai, ez eukein.

6. Karobiaren aurrean zaintzailearentzat txabola

- **Erref:** ONA-029/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiaren aurrean txabola egiten zen karobia zaindu behar zuenarentzat. Karobia gau eta egun zaindu behar izaten zen eta eguraldi txarra eginez gero txabola babesa izaten zen zaintzailearentzat.

Transkripzioa

- Zelakuak izaten zian? Batzuk hola eukitten euen, guria hola, txabolia moduan euen gaiñian, edo teillatua. Batzuk teillatudunak izaten zian eta beste batzuk ez.
- Ez, ez, librian, oin ba, klaro, Erostege Txikiñian be hantxe dao, oinddiok bere txabola ta guzti dako. Txabolia etzan izaten karobixan gaiñian, e?
- Ez?
- Aurrekaldian. Eurixa edo egualdi txarra eindda be, ba sikutan, norbera...
- A! Norbera sikutan egoteko izaten zan?
- Norbera sikutan egoteko. Eguzkixa baldin baeuen, ba keizpetan. Karobixaren gaiñian ez, e?
- Klaro, nik uste neben karobixaren parian, keiandako eta...
- Ez, ez, ez. Bai, keiandako eta; sua be, karia erreten danian, sua be altu botaten dau. Erre eitten danian, ha faten da behetik gora faten da, berotuaz, berotuaz, berotuaz; karia eñaz sua gora faten da. Eta han gaiñian ifintten badozu txabolia, ba ha [erreta dao]. Ez, ez, aurrekaldian. Eurixa eitten badau, egualdi txarra eitten baldin badau... Ni akordaitten naiz urte baten guri edurra ein oskun.
- Edurra, e?
- Bai, karobixa erreten gabitzela, edurra, eguraldi txarrak emun et ...
- Etzan giro izango kanpuan egoteko!
- Ez baiña, ba, ohol batzuket ahal dan moduan ein aurrekaldeko txabolioi ta...

7. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-029/007

- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiaren ataka. Karobia nola joaten zen betetzen; lehenbizi "anporrak" sartzen ziren eta gero su eman. Karobiaren inguruko azalpenak. Nola ixten zen karobia, sua kanpora irten ez zedin.

8. Kareia egiteko lehengaiak

- **Erref:** ONA-029/008
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobirako lehengaiak: kareharria, otea eta egurra. Nondik ekartzen zen kareia egiteko lehengaiak. Otak basotik ekartzen ziren leretan. Pago-egurra norberaren basokoa izaten zen. Beraiek azkenaldian behintzat pinua erabiltzen omen zuten. Kareharria ere inguruetatik hartzen zen. Honen inguruko azalpenak.

9. Harriak nola jartzen ziren karobian

- **Erref:** ONA-029/009
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:23:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobian harriak ipini behar dira, baina ez horma egiteko moduan, baizik tarte pixka batekin, "suak korridu deixan". Azkenengo jartzen den harria da karobia ixten duena eta hari "kiltzia" deitzen zaio. Karegintzaren inguruko azalpenak. Suarentzat lekuri ez bazegoen karobian, brasa atera behar izaten zen "belakixakin". Beste karobi batzuek zuloa izaten zuten azpialdean eta horrela brasa hiltzen joaten zen.

10. Karobia udaberrian

- **Erref:** ONA-029/010
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Etxekoek edo bi etxeren artean egiten zuten karobia. Karobiak udaberri inguruan egiten ziren; arrazoiak azaltzen ditu.

11. Ota asko behar karobirako

- **Erref:** ONA-029/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ota asko ekarri behar izaten zen karobirako eta erre ahala joaten ziren ekartzen, gainera, beti prest edukitzea komeni zen eta. Erregai gehiena ota izaten zen eta egurra amaieran sartzen zitzaion.

12. Adarrak beheko sutarako; "gelaatzua"

- **Erref:** ONA-029/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Beheko sutarako abarrak erabiltzen ziren lehenago. "Gelaatzua"; oraindik etxean gordeta dutela aipatzen du. Euren baserría 400-500 urte ingurukoa omen da.

13. Karea sozio egindakoan giro hobean

- **Erref:** ONA-029/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Karea beste etxe batzuetakoekin sozio egiten zenean jende asko biltzen zen eta giro ona izaten zuten, baina etxekoek bakarrik egin behar zutenean, lana latz egin behar izaten zuten.

14. Karobirako kareharria; karobia nola kargatu

- **Erref:** ONA-029/014
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:34:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Kareharria ekartzeko lana gizonezkoek egiten zuten. Harria gurdian ekartzen zen. Kareharri asko behar izaten zen karobirako. Karehaitza behar zen karea egiteko, lapitz-harriak "tiroa" egiten du eta. Honen inguruko azalpenak. Karobia betetzeko ez zuen edonork balio, ondo jakin behar zen eta. Bere aitari leku askotatik deitzen zioten lan horretarako. Nola jartzen ziren harriak karobian. Amaieran "kiltzia" sartzen zen goitik behera.

15. Harriak hartzen duen kolorea erre ahala

- **Erref:** ONA-029/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:34:35. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobia erretzen doan heinean, harriek gorri kolorea hartzen dute. Beheko harriak gorritzen direnean garra puntara joaten da, goitik ikusteko moduan. Behin erretakoan, kolore berdeska hartzen du harriak, hauts-kolore tankerakoa.

16. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-029/016
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karegintzaren inguruko azalpenak. Karobiaren arkua nola egiten zen. Karobia lehenbizi azpitik eta lekuri ez zegoenean goitik kargatzen zen. Zenbaitetan harriren batzuk erori eta berriz jarri behar izaten ziren.

17. Anporrak lehenbizi karobia berotzeko

- **Erref:** ONA-029/017
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Normalean karobi barruan ura egoten da eta hasieran karobia berotzea komeni izaten da. Horretarako anporrak sartzen dira hasieran, harek karobia berotzen du eta. Anporrari otarekin edo zerbaitekin su eman eta harek karobia berotzen du.

18. Karobia erretzeko prozesua

- **Erref:** ONA-029/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bazkalostean ematen zioten su normalean karobiari. Anporrak erretzen egoten ziren denbora luzez eta hurrengo goizaldera arte ez zuten bestelakoak sartzen hasi beharrik. Karobia erretzeko prozesua.

19. Bihurra; "sapiñue"

- **Erref:** ONA-029/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Bihurra nola egiten den; "sapiñue" zer den: haritz adar meheekin egiten den lotura, gero uztarrian sartzen zena.</p>

20. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-029/023
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karegintzaren inguruko azalpenak. Su motela behar izaten zen. Ataka: erreondoko tubo antzekoa. Kontuz egin beharreko lana zen.

21. Zenbat denbora behar duen karobiak erretzeko

- **Erref:** ONA-029/024
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ataka jarritakoan indartzen zen sua eta ordutik aurrera ota sartu eta sartu ibili behar izaten zen. 2 gau eta erdi inguru behar izaten zituen euren karobiak erretzeko, txikia zen eta. Gauez karobia zaintzeko txandak egiten zituzten.

22. Karobia etengabe zaindu behar

- **Erref:** ONA-029/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bi lagun egoten ziren lantzean karobia zaintzen. Bero handia egoten da karobiaren aldamenean. Su altuari eutsi behar zaio eta eguraldi txarra egiten badu nola konpondu izan diren azaltzen du. Behin elurra egin zien. Karegintzaren inguruko azalpenak. Karobia etengabe zaindu behar izaten zen, edozein momentutan sua kanpora irten zitekeen eta.

23. Harri zatiei karobi barrura bultza egiteko "kusiña"

- **Erref:** ONA-029/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Sardearekin bultza egiten zitzairen zatiei berriz karobi barrura. Beraiek "kusiñ" deitzen zioten bi hortzeko sarde modukoa erabiltzen zuten.</p>

24. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-029/028
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karegintzaren inguruko azalpenak. Harriak nola goritzen diren; gero "belundu" egiten omen dira. Karobia erretakoan, tapatu egiten da. Egun oso bat utzi behar izaten zen karea hoztu bitartean. Orduan ez zen eskularrurik eta artean harria beroa egoten zen.

25. Karea eskuz ateratzen zen karobitik

- **Erref:** ONA-029/029
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eskuz ateratzen zen karea karobitik. Banastak bete eta gora pasatzen zituen behean zebilenak, gora atera behar izaten zen eta. Karobitik ateratako harriekin nola egiten zen karea: ontzi batean ipini, ura bota eta makila batekin eragin. Hurrengorako ere ondo kontserbatzen zen karea. Jendea etortzen zitzaien baserrira kare bila.

26. Karea hondatzen duten faktoreak; "gorringoa"

- **Erref:** ONA-029/030
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobia hondatzen zuten faktoreak. "Gorringoa" zer den; harria gainetik karea egin, baina barrutik erre gabe geratzen zen batzuetan.

27. Herritar baten inguruko anekdotak

- **Erref:** ONA-029/033
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Estraperloko kontuak. Ezkontzetarako, pattarra behar izaten zen; eta, ezkontza baterako, estraperloan ibiltzen zen bati eskatu zioten. Horren inguruko anekdota. Beste behin, emakumeei anisa eman eta mozkortu egin ziren. Bere aitonak kontatzen zizkion halako anekdotak.

28. Herritar baten inguruko pasadizoak

- **Erref:** ONA-029/034
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lursail batzuen inguruko pasadizoa. Ezagun bat tratularia dela aipatzen dute. Horren inguruko kontuak. Ezagun batek ezkontza-tratuak egiten omen zituen. Herritar batzuen inguruko pasadizoa.

29. Bikote baten inguruko pasadizoa

- **Erref:** ONA-029/036
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lehenagoko anekdotak. Bikote bat ezkondu eta goilareak erosteko garaia ebakitzera joan ziren. Horren inguruko pasadizoa.

30. Karea etxeak zuritzeko, soroarentzako, animalien hanketako gaitzak sendatzeko...

- **Erref:** ONA-029/038
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserrí batzuetakoak besteei laguntzera joaten ziren eta trukean etxerako lain kare ematen zitzaíen. Karea nori saltzen zioten. Kanean ere etxeak karearekin zuritzen ziren. Adrian igeltseroa. Karea soroa desinfektatzeko ere ona omen zen, baina beraiek ez zuten horretarako erabiltzen. Ardien hanketako gaitzak sendatzeko ere erabiltzen da karea. Bera mutikoa zela behiak egon ziren "hankaminarekin". Haiek sendatzeko (desinfektatzeko) karetera ateratzen zituzten behiak.</p>

31. Mutikotan karearekin irabazitakoa ezkutuan poltsikora

- **Erref:** ONA-029/039
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Karea arroaka neurtzen zen, (arroa 1= 12.5 kg). Arroa garestien saldu zutenean zazpi errealetan saldu zuten. Inoiz etxean bakarrik zegoela norbait erostera etorri z gero, zakua azkar eman eta errealak poltsikora, igandean gastatzeko. Orduan gaztetxoei ez zitzaíen pagarik ematen igandetan. Kalera ere egun berezietan joaten ziren soilik.</p>

32. Erromeriak Urriagainen

- **Erref:** ONA-029/040

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gerra aurretik Urtiagainen erromeria egiten zen jaiero eta jende asko joaten zen inguruetatik. Bolalekua ere bazegoen bertan.

33. Karea egiten ari zirela, elurra

- **Erref:** ONA-029/042
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Karobia egiten ari ziren batean, elurra egin zien bota eta bota. Apirila zen; lehenbizi euria egin zien eta gero elurra. Hori izan zen karea egitean gertatu zitzaion anekdota handiena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com